



BOST URTE ESKUALDEKO BERRIAK ZABALTZEN

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAK bost urte beteko ditu martxoaren 25ean; ospatzeko, egitarau berezia izango da 7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2008-03-16

VIURTEA 1.388.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Naturgas-eko Noel Martin garaile Lizartzako XX. Txirrindulari Proban

PODIUMA Bigarrena Jose Carlos Lara izan zen, eta hirugarrena Enrike Sanz; mendiko onena Julen Gonzalez

PARTE-HARTZEA Afizionatu mailako Insalus Saria lasterketan 133 txirrindularik hartu zuten parte 4



Barriolak eta Gonzalezek Bengoetxea eta Otxandorena garaitu dituzte

LEITZA Irabazi arren, gaurko Titinen eta Laskurainen partidaren arabera izango dira finalean 5

Tolosako ezker abertzaleak hauteskundeetan abstentzioa izan dela garailea adierazi du

TOLOSA «%18a igo da, eta horiek bozketara pasata 2.700 inguru izango lirateke», azaldu dute 6

Film aukera berezia izango da Leidor aretoan Aste Santuko opor egunetan

TOLOSA Film ugari izango dira ikusgai prezio baxuan, abonoak ere atera baitituzte 6

Naturgas taldeko Noel Martin txirrindularia podiumean garaipena ospatzen, atzo, Lizartzan. A. MAZ

K Komikia

Gorka Salaberria



Beste larunbatetan baino lasaiagoa izan zen atzoko azoka eguna

Tolosa » Herritar askok, opor egunak aprobetxatuz, kanpora ateratzea aukeratu dutela nabaritu zen.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna lasaia suertatu zen goiz osoan. Bisitari askok kanpora ateratzea aukeratu dute jai egun hauetan, eta nahiz eta kanpotar asko izan atzo bisitari moduan, giroa ez zen beste asteburutan bezelakoa izan.

Eskaintza bikaina

Eskaintza ordea, apartekoa izan zen. Aurtengo lehenengo ziza horiak izan zirensalgai. Bikilo 140 eurotan salduak goizeko lehenengo orduan.

Barazki zerrenda ere oso zabala izan zen, ilarrak nobedadea direlarik. Joan den astean ikusigenituen, eta atzo ere mahaietan izan ziren aukeran. Dirudienez, ez da asko falta babak agertu arte.

» ATZOKO AZOKA

	Merk.	Gares.
Berdura plaza Landareak		
Landina	10,00	-
Ziklamena	2,20	5,00
Erromeroa	4,00	6,00
Xarbota	4,00	6,00
Gerbera	12,00	-
Biola	3,00	-
Lobelia	4,50	-
Salbia	1,00	1,20

Bertako produktuak Perretxikoak

Onddoa	28	-
Fruta		
Errezil sagarra	0,80	8,00
Matxakana	6,00	-
Zainzuria	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00

Barazkiak

Tolosako babarruna	10,00	12,00
Babarrun zuria	8,00	10,00
Ilarra	12,00	-
Tomatea	2,00	4,00
Porruak	1,00	8,00
Kalabaza	1,50	3,00
Zainzuria	16,00	-
Erremolatxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Arroza	1,90	2,00
Tipula	1,75	2,00
Dilistak	2,40	-
Arbi morea	4,00	-
Zerba	2,00	-
Erremolatxa	1,60	-
Letxua	1,00	-
Aza	2,50	3,00
Ogia	2,55	-
Mermelada	3,00	3,60

Asteazkenean bete ziren 75 urte Jose Maria Agirre 'Lizardi' hil zela; Zarautzen jaioa, baina Tolosan bizi izan zen; bere garaiko ekintza kultural eta polikoetan parte hartu zuen; olerkari handia izan zen 7.

75 urte igaro dira Lizardi hil zela

ERREDAKZIOA

Asteazkenean 75 urte bete ziren Jose Maria Agirre edo *Xabier Lizardi* hil zela. Idazlea izan zen, batez ere, olerkigintzan.

1896an jaio zen Zarautzen, baina Tolosan bizi izan zen. Legelari-kasketak egin zituen Madrilen eta ondoren, Tolosako enpresabatean sartu zen lanean. Lanaren ondorioz asko bidaiatu zuen.

Euskaltzaleak elkartearen sortzen lagundu zuen. Esteban Urkiaga *Lauaxeta* eta Nikolas Ormaetxea *Orixe*-rekin batera, bere aroko olerkari hobena izan zen. *Biotz-begietan*, 1932an argitaratuta, bere poesia-lanik garrantzitsuenak izan



Lizardiren omenezko oroitarria. J.S.



Xabier Lizardi. HITZA

zen. Hizkuntza poetiko sakona landu eta euskal lirikari balio berriak ekarri zizkion. Gai nagusi bezala izadia erabili zuen.

Famili barruan izan zituen zori-tzarreko gertaerak poesiaz adierazi zituen: alabaren heriotza (*Otar-*

txo utsa), semearena (*Xabierren eriotza*); amonaren asko hunkitu zuen (*Biotzean min dut*).

Olerki idealista da berea, barne-gogoeta munduko errealitateak hartzen saiatzen da. Aberria eta euskara ere izan zituen olerkigai.

1933an Lizardi hil eta gero, *Aitzol*-ek argitaratu zituen bere *Ume-zurtz Olerkiak*.

Lizardi politikaria

EAJren militantea izan zen, Tolosako *Euzko Gaztedia*-ren lehendakaria, EAJren *Aberrri* eta *Comunion* adar bananduen arteko elkarriketetan parte hartu zuen eta Gipuzku Buru Batzarreko kide eta buruzagi izatera iritsi zen.

1929an, Eusko Ikaskuntzaren udako ikastaroetan, Lizardi euskarazko egunkari baten egitasmoa aurkeztu zuen eta baita zero alea ere. Euskara hutsezko egunkari bat proposatzen zuen, baina diru faltagatik ez zen aurrera atera.

Donostian dagoen enpresa batek KOMERTZIALA BEHAR DU Donostia aldean aritzeko

Erreferentzia: 08-IHK

Eskaintzen da:

- Egun erdiko kontratua.
- Soldata interesgarria, finkoak eta komisioek osatuta.
- Beste lan komertzialekin bateragarria.

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izatera dinamiko izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Gida baimena eta autoa izatea.

Curriculum Vitae zehatza bidali, martxoaren 18 baino lehen, gizabaliabideak@jarduna.net POSTA ELEKTRONIKORA. Ez ahaztu erreferentzia zehatzea.

ADIMEN URRITASUNA DUTEN PERTSONEN ETXEBIZITZA HARRETARAKO,

MONITOREAK

BEHAR DITUGU ASTEBURUETAN ETA JAIEGUNETAN LAN EGITEKO TOLOSALDEKO PISUJETA.

Eskeintzen da:

- Hileko 700€ eta 900€ bitarteko soldata garbia eta aparteko bi soldata.
- Epe ERDIRA astean zehar diren txandetarako promozioetan sartzeko aukera.

Eskatzen da:

- IL.LH-ko titulua izatea edo gizarte, heziketa edo osasun arloan erdiko edo goi mailako ikasketak izatea eta orain dela 4 urte gehienez aterata izatea.
- B ereduko gidabaimena.

Kontuan hartuko da:

- Bi hizkuntza ofizialak ezagutzea.

Interesaturik bazaude bidali lehenbailehen zure kurrikuluma 20.080 Donostiako 411. postakutxara.

Kandidaturak jasozeko azken eguna 2008/03/31a izango da

Bertso-Eskolak



» Uzturretik

Felix Irazustabarrena

Bertso eskolen eguna (Usurbilen, 2008ko apirilaren 20an) antolatzeko bileratik bueltan

etxean zain neuzkan bi seme zaharrenak *play station* bat erostea erabaki zutela esateko. Juxtu bileran Andoni Egaña aritu zitzaizgun esplikatzeko badirela bere baitan bukatzen diren ekimen batzuk, *play station*-en adibidea jarri zigun. Hori lantzen duenak horretan duela gero abildadea. Xakean oso ona izateak horretarako balio duela, xakean irabazteko.

Aldiz bertso eskola, eta horretaz genuen bilera, ez da bakarrik bertsoariak egiteko, haurrek, eta

ez hain haurrek, hainbat balore eta gaitasun lantzen dituzten lekuak baitira.

Dudarik gabe hizkuntz gaitasuna, gero eta gehiago falta dugun eta premiazkoagoa den ahozko espresiorako trebezia, hizkuntzaren alde ludikoa, euskal kultur ondarearen jabe egitea, doinuak musika... lantzen dira, baina baita pertsonaren gaitasunen garapenerako oso inportanteak direnak ere.

Autokonfiantza, autoestima, jarrera probatzaile eta sortzaile-

ak... Komunikatzen jakitea, memoriaren lanketa, hunkiarazteko estrategiak...

Andonik dio ez duela gogo berezirik bere semea edo alaba bertsolari izateko, horretarako burua asko hustu eta sabela eta birrikak asko bete behar omen dira, baina alabak behin abokatu ikasketak egin nahi zituela galdetu zionean, berehala erantzun omen zion, «badakizu nora joan; bertso-eskola».

Lehen aipatutako lankezetan ari zenean eta diskurtsoa osatzeko baliabideez, jarria hobetzeaz, erretrorikaz...

Bertanzen Unai Muñoak berari bertso-eskolak eman ziona ere

agertu zuen. Lasarten adin, helburu eta maila desberdinekoak biltzen zirelarik, Unai entzuten ikasi omen zuen, besteen argudioak ere kontutan hartzen. Eta erantzuten, argudio horietatik berea eraikitzen. Kooperazio jarrerara, bertso dialektika, besteen rolak bereganatzea... horretaz ari zen.

Semeek dagoeneko *etxetxuak* puskatuta zituzten eta ez zen erreza atzera egitea, beraz laster jolas berri bat izango dugu etxean. Hala ere esan nien, «bihar, os-tirala, bertso eskola da». Baietz, oso ondo pasatzen dutela eta sin falta joango zirela erantzun zidaten. Gaitzerdi.

S Soka motzean

«Daukazuarekin konforme gotea da niretzat zoriona»

MIKEL ZABALETA 'PERITZA' >

Peritza tabernako nagusia

NAIARA GARZIA

Irakurri duzun azken liburua?

El ocho, Katherine Nevillera.

Film bat?

Matrix.

Abesti bat?

Guns and Roses-en *Sweet Child o' mine*.

Oporretarako leku bat?

Munduko edozein leku.

Egin duzun azken bidia?

Argentina. Herrialde zoragarria da, baikusteko leku aldetik, baita jende aldetik ere.

Edari bat?

Ura, ardoa eta zerbeza.

Telebistako programa bat?

Albisteak eta pelikulak.

Idazle bat?

Bernardo Atxaga, Eduardo Galeano eta Mario Benedetti aukeratu nituzke.

Afari erromantiko batetarako zer prestatuko zenuke?

Kasu horretan zer afaldu dudan izanen litzateke gutxiena axolako litzaidakeena.

Zuretzat, zer da zoriona?

Daukazuarekin konforme egotea da niretzat zoriona.



N. GARZIA

B Blogteka info

Xaxiren urtebetetzea ospatzen

Xaxiren, txikien maskotaren, urtebetetzea da gaur. Herenegun ospatu genuen Arroan. Xaxik hamaiketako eta pinak ekarri dizkigu, eta guk berari marrazki gutuzki politak. Festan abestiak, olerkiak, eta txotxongiloa egin ditugu. Oso pozik dagoela adierazi digu. Zorionak Xaxi!

Doctor Fleming ikastetxearen bloga

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/fleming/>



Samaniegon, kirol astea

Samaniegon kirol astea ospatu dute. Azken hilabetean, lehen hezkuntzako ikasleak esku pilota eta saskibalo partidak jokatu dituzte. Aste honetan, finalerdiak eta finalak. Argazkian, sari banaketa.

Samaniego ikastetxearen bloga

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/samaniego/>



U Urteurrenak

I. urteurrena JULIANA KARRERA AGIRREBARRENA

2007ko martxoaren 13an hil zen, 75 urte zituela. Eliza-koak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-



Bere senarra: Asintxo Karrera; seme-alabak: Lurdes eta Xabier, Josebeto (T), Añes eta Joseba, Arantxa eta Jokin, Joxe eta Gemma, Jaione eta Edorta, Asintxo eta Gaili, Bilobak Oier, Xuban, Ireber, Egottz, Maialen, Udane, Oneka eta Iradi. Senideak, ezkonenideak, izabak, ilobak, lehengusuak eta gainontzeko ahaideak.

Haren animaren alde oloitz bat eskatzen dizuzete eta arren etor zaitzetea GAUR IGANDEA, gozoko 11:15ean San Bartolome parrokia elizan, egingo den mezara. Aldez aurretik, mila esker.



AMEZKETAN
2008ko
martxoaren 16ean

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta GIPUZKOAKO beste 4 HITZETAN DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra



BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia)
Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia)
Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasaja
Talosa (Bellatokia)



Ihes egindako txirrindulariak indartsu iritsi ziren helmugara, Noel Martin buru zutela. ASIER IMAZ

Noel Martin jaun eta jabe Lizartzan erorikoa izan arren

Kirola » Afizionatuen mailako Lizartzako XX. Txirrindulari Proba azken esprintean erabaki zen atzo.

ASIER IMAZ

Lizartzako XX. Txirrindulari Proba edo *Insalus Saria* atzo korritu zuten. Naturgas taldeko Noel Martinen garaipen handiarekin amaitu zen afizionatuen mailako Lizartzako proba.

Eguraldia ez zuten lagun izan parte hartu zuten 133 txirrindulariek. Tarteka eguzkia, tarteka euria eta errepidea bustia.

Erori eta irabazi

Noel Martin txirrindulariak lortu zuen garaipena handia izan zen, ihesaldi batean sartu ostean, Altzo jaisten ari zela multzotxoan, lurre-ra erori baitzen, helmugatik 7 kilo-

metro eskasera beraz. Bizikleta ganean jarri eta iheskideak harrapatzeaz gain, azken esprintean denak atzean utzi zituen nagusitasun handiz. Horretaz gain, afizionatu mailako Lehendakari txapelketaren lehen postua mantendu zuen atzoko garaipenarekin Noel Martinek.

Bigarren postuan Cantabria Infinala Jose Carlos Lara heldu zen eta hirugarren, Lizarteko Enrike Sanz.

Mendiko sailkapena Julen Gonzalezek irabazi zuen, Azpiru Ugarte taldeko txirrindulariak. Taldekako sailkapena berriz, irabazlearen taldeak eraman zuen, Naturgasek, hain zuten.

Ibilbide gogorra

Atzerapenarekin irten ziren 133 txirrindulariak Lizartzatik. 18:10erako zegoen irtsiera aurreikusia baina eta ez zen Martin urruti ibili. Abiada izugarri korritu

zituzten 107 kilometroak eta amaieran proba amaitu zutenen artean nekea zen nagusi.

Lizartzatik Alegiara joan ziren lehenik, ondoren Ordiziara (Gipuzkoa) iritsi eta Alegiara berriz itzultzeko. Hemendik Altxokogainari heldu zioten, euria lagun zutela. Mendiko saria iragan ondoren, Lizartzara joan ziren txirrindulariak lehen itzulia osatuz. Bigarren itzulian ez ziren Ordiziara iritsi, zuzenean Alegiatik Altxorako igorera egin baitzuten.

Lehen itzulian Lizartzatik ihes egindako talde bat iragan bazen lehen postuetan, bigarren itzulian pelotoia batera pasa zen Lizartzatik. Helmugarako azken itzulia falta zela, Leaburu eta Altxoko gainak zituzten zailtasun nagusi bezala. Talde batek ihes egitea lortu zuen eta horien artean aurkitzen zen *Insalus Sariko* irabazlea. Erorikoak eta euriak ezin izan zuten Noel Martin garaitu atzokoan.



Bazkariaren aurretik ekitaldia egin zuten Tolosako Abastosen. ASIER IMAZ

Gazte Eguna Tolosa eta Villabonan

A. IMAZ

Gazte Eguna ospatu zen atzo Tolosa eta Villabonan. Bi herrietan mendi irteera, bazkaria eta kontzertuak antolatu zituzten.

pendentzia jarri zioten, Tolosako Gazte Egunaren leloa hain zuten ere. Ondoren bazkaria eta 17:00etan Jipoi taldearen musikaz gozatu zuten.

«Etorkizuna Independentzia»

Tolosan elkartu ziren gazteek Uzturre igo zuten goizean, eskalatzaileen moduan bide berri bat zabaldu zutelarik. Bide bat zabaltzen den unean izena jarri behar izaten zaionez, hauek *Etorkizuna Inde-*

«Gazteak herria piztera goaz»

Villabonan mendi irteeraren ostean, bazkari herrikoa eta trikopoteoa egin zuten, kontzertuekin *Gazteok herria piztera goaz* lelopean antolatutako Gazte Egunari amaiera emanaz.



Autoak ala errepideko hegazkinak

BIDEGOIAN » Ikasberri IX. Rallysprint-a jokatu zuten atzo Azpeitia (Gipuzkoa) eta Bidegoiaren artean. 65 lagunek hartu zuten parte autoen lasterketan. Mendi artean hegazkina edo autoaren zarata entzuten zen asmatzea zaila zen Bidegoiaren. ASIER IMAZ

Iragarki laburrak

LANA

■ **Tabernaria.** Neska euskalduna behar da lurra taberna lan egiteko. 943 69 26 32.

■ **Etxeko lanak.** Neska euskaldun bat behar dugu etxeko lanak egiteko eta adineko emakume bat zaintzeko. Alegian. 651 70 42 19.

SALGAI

■ **Hondarra.** Itsasoko hondarra salgai baratze lurrari nahasteko edo lorategietarako. Beharrezkoa kamioiarentzako sarrera ona edukitzea. 16 m³, 250 euro. 617 38 19 39.

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdian bi logelako etxea salgai, egoera onean, oso merkea. 665 70 86 35.

ALOKAIRUA

■ **Garajea.** Garaje itxia Trianguloan. Interesatuek deitu: 677 00 00 05.

BESTEAK

■ **Harremanak.** 40 urteko mutila, jatorra eta langilea. Neska bat eza-gutu nahi nuke. 638 89 72 96.

■ **Txakurkumea.** Bolder Collie kume emea oparitzen da. Deitu: 658 70 59 12 (Xabo).

KONPARTSA HERRIKOIA

Inude eta Artzainak

ENTSEGUA Astelehena (Martxoak 31n lehen entsegua) 20:30etatik 21:30etara
Billabonako Ikastolako ganbaran

DEIN-EMATEA Asteartea (20:30-22:30) eta Ostirala (18:30-22:30)
Billabonako Ikastolako ganbaran
harremanak@oinkari.net - Tel. 660 139 380

SANTIO JAIAK 08

Uztailak 27,
igandea
BILLABONA

dantzariak
musikariak
pertonaiak
danborrada

BARBELA: Gazte nahiz heldu, denok batera, egun eder bat igarotzera animatzen zaituztegu!



Eskolarteko finala jokatu zuten atzo Ibarako kiroldegian eta lau partida jokatu zituzten. N. GARZIA

Barriolak eta Gonzalezek irabazi arren, finalera joango diren gaur erabakiko da

Pilota »Zazpi Itturri Berria Txapelketatik at gelditu da, 3 partidetatik 2 galdu ondoren ez baitzituzten behar adina puntu lortu.

NAIARA GARZIA

Atzo hainbat txapelketa jokatu zituzten eskualdeko pilotariak. Maila ezberdinetakoak izan ziren, herri mailakoak (Alegiako Zazpie Pasa Txapelketa bezala), eskolartekoak, edo Berria Txapelketa bera. Baina Euskal Herria mailan garrantzi handia daukan binakako txapelketako finalerdietako bat ere jokatu zuten atzo Labriten. Barriola eta Gonzalezek Bengoetxea eta Otxandorenaren aurka aritu ziren eta partida irabazi zuten (22-16).

Barriolak eta Gonzalezek, ordea, ez dute oraindik finalerako txartela lortu. Gaur, Titinek eta Laskurainek 6 tantotik gora atera beharko lizkiete Olaizabal eta Mendizabali finalerako kanpogelditzeko. «Finalean bagaude oso ongi, beste la nik uste txapelketa ona egin dugula, 11 partidetatik 10 irabazi ditugu eta hori ere bada zerbaib», esan zuten Barriolak.

III. Zazpie Pasa Txapelketa

Otsailaren 9an abian jarri zen Alegiako Zazpie Pasa Pilota Txapelketa hirugarrenetako eta asteburuko pilota partidak jokatzeko ari dira ligaxka baten barruan. Aurten, Ga-

rikoitz Zubillaga antolatzaileetako batek azaldu duenez, berrikuntza bat gehitu diote txapelketari. «Orain arte binakakoa soilik jokatzen zen eta aurten binakakoa ere antolatu dugu, lau t'erdian, eta jende aldetik uste baino harrera hobea izan du». Banakakoan 28 pilotarik eman zuten izena, eta binakakoan, 18 bikotek. Atzo arratsaldean bertan beste partida batzuk jokatu zituzten, eta antolatzaileek azaldu zutenenez, «digaxkan ez da maila oso altua izaten, gero maila altuagoa ikusiko dugu».

Kategoria bakoitzeko txandakartzen dutenez, banakakoaren finalerdien apirilaren 12an hasiko dira eta binakakoarenak, apirilaren 19an.

Gipuzkoako Eskolartekoa

Gipuzkoako Eskolarteko Eskuzko izan zen Ibarako Belabieta Kiroldegian. Orotara lau final jokatu zituzten, bi mailatan: alebinetan eta infantiletan, eta bakoitzaren barruan neskek eta mutilak aritu ziren.

Alebin nesketan Azpeitiko Ikasberrik Altzoko Imaz Bertsolariaren aurka jokatu zuen eta hauek irabazi zuten; mutiletan, Villabonako Jesusen Bihotzak irabazi zuen Zaldiabiako Lardizabalaren aurka. Haur-kategorian, nesketan, Zarautzeko Lasaiek herri bereko Lizardiren aurka aritu ziren eta lehenengoek irabazi zuten, eta muti-

letan, Asteasuko Pello Errota Añetako taldearen aurka gailendu zen.

Berria Txapelketan

Zazpi Itturri taldeak atzo Berria Txapelketako final laurdenak jokatu zituen Burlatako Zugarraldearen aurka, baina txapelketatik kanpo gelditu ziren. 3 kategoritan lehiatu ziren, kadeteetan, gazteen mailan, eta nagusietan, eta soilik lehenengo partida irabazi zuten (22-14). Gazteek 22-8 galdu zuten eta nagusiek 22-19.



'Haur kabareta', leku magiko bat

VILLABONA » Atzo Villabonako haurrek umeentzako kabaret batetaz gozatzeko aukera izan zuten, 17:00etatik, aurrera, Gurea Aretoan, *Haur kabaretarekin*. Antzerki taldeak oholtza leku magiko batean bilakatu zuen eta honi esker umeek beraien imaginazioan barrena bidaiatzeko aukera izan zuten, txotxongiloak, abestiak... uztartzen baitituzte. N. GARZIA



6 garagardo dastatzeko aukera

BERASTEGI » Herenegun hasi zen Gazte Festen bigarren asteburua, gazteen eta helduen arteko futbol partidarekin eta Kakonen egin zuten bertso afariarekin. Atzo arratsaldean garagardo dastaketa egin zuten pilotalekuan, eta bertan 6 garagardo ezberdin dastatzeko aukera izan zuten. 00:00etan, Laitoz taldearekin eman zioten amaiera festa hauei. N. GARZIA

MONBEAUTY
Edergintza,
Ileapaindegia eta Solariuma

**NEODEPILAZIOA
LASER ETA A.P.L. BIDEZ**

**ESKAINZA
BEREZIA**

"ZONA
HANDIAK"

(%30-EKO
deskontua
aurreneko
3 SAIOETAN)

* IZTERRONDO+ AXILAK = 116€
* HANKA OSOAK = 203€

Osteguna eta ostirala
egun guzizian zehar
zabalik

Oría, 16 behea
TOLOSA
943 65 58 37

0-16
urte

uzturpe
ikastetxe bat baino gehiago

**haur eskola
ludoteka
ikastola**

martxoaren 31tik apirilaren 11era
matrikulatze kanpaina zabalik

del lezagu zu eta bisita antolatuko dugu

001618 12:30am - 14:30am 18:00am

Ignazio 3, 20400 Barria | Tel. 943617009 | Fax. 943617007 | e-posta: info@haurpe.net

ERREDAKZIOA

Dagoeneko bost urte bete dira euskarazko egunkariaren lehen aleak argia ikusi zuenetik. Orduetik hamaika albiteren berri eman du TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK. Bosgarren urteurrenaren atarian, urte hauetan egunkaria informazioa jasotzeko eta zabaltzeko baliatu dutenei eskerrak eman nahi dizkiete HITZA posible egiten duten langile guztiek.

Halaber, urtemuga berezi honen harira, hainbat ekitaldi antolatu nahi izan ditu euskarazko toki-egunkariak, gizarte eragile, harpidedun eta herritar guztiak batera ospatzeko.

Hitzordua apirilaren 5ean

Urteurrena martxoaren 25ean bada ere, Aste Santuko oporraldia dela-eta jaialdia atzeratu egingo da. Hala, apirilaren 5ean gaztetxo eta helduentzako ekitaldiak antolatu ditu HITZAK. Arratsaldeko 17:00etan, Tolosako Beotibar pilotalekuan *Xurdirin kontzertua* emanaldia eskainiko dute Sointek ekoiztetxearen eskutik. Sarrera harpidedunentzat 3 eurokoa izango da eta ez harpidedunentzat, berriz, 5 eurokoa.

18:00etan, berriz, mus txapelketazkarra izango da Tolosako Oargi elkartearen. Parte hartu nahi duenak 17:30ean Oargin bertan izena eman dezake eta bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu. Irabazleentzat bazkari edo afaria izango da Tolosako Isastegi sagardotegian.

Eta gualdean festa giroak Oargi elkartearen jarraituko du, bertan, bertso afaria izango baita. Amaia Agirre, Jesus Mari Irazu eta Diego Riaño bertsolariak hartuko dute parte.

Txartelak salgai

Bertso afaria joateko txartelak dagoeneko salgai daude Zizurkilgo Aurreran, Tolosako Raku eta Denak eta Leitzako Torrea tabernatan. HITZAREN egoitzan bertan ere izango dira salgai.

Harpidedunek 20 euroren truke izango dituzte; harpidedun ez direnek ere bertso afaria joateko aukera izango dute, 25 euroren truke.

Xurdirin emanaldia ikusi nahi dutenentzat ere TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK harpidedunak nolabait saritu nahi izan ditu, sarrerak merkeago eskainiz.

Mahainguru interesgarria apirilaren 3an

Larunbateko ekitaldiez gain HITZAK mahai ingurua antolatu du apirilaren 3an. Hain zuzen ere, euskal prentsaren eta komunikabideen egoeraz izango dute hizpide, Irene Larraza kazetariaren gidaritzapean. Hizlari bezala, berriz, eskualdeko kazetari ezagunek hartuko dute parte: Martxelo Otamendi *Berria*-ren zuzendaria, Jaime Otamendi ETBko albistegietako zuzendaria, Joxemi Saizar irakaslea eta HITZAREN zuzendaria



Goian Xurdirin emanaldi bat, eta behean, bertso afarian ariko diren 3 bertsolariak. HITZA

Datorren hilaren 25ean bost urte betetzen dira HITZAREN lehen alea kaleratu zela; urteurrenaren harira jaialdia antolatu du HITZAK; harpidedun, gizarte eragile eta herritar guztiak parte hartzera gonbidatuta daude.

Bost urte gure artean

» JAIALDIA

Apirilak 3, osteguna

■ **19:30.** Euskarazko prentsaren egoerari buruzko mahai ingurua izango da Kultur Etxean. Partaideak, besteak beste, Martxelo Otamendi, Joxemi Saizar, Jaime Otamendi eta Jon Miranda izango dira. Moderatzaile lanetan Irene Larraza ariko da.

Apirilak 5, larunbata

■ **17:00.** Tolosako Beotibar pilotalekuan, 'Xurdirin kontzertua'. Sarrerak, harpidedunentzat 3 euro, ez harpidedunen 5 euro.

■ **18:00.** Mus Txapelketa azkarra, Tolosako Oargi elkartearen. (Bikoteko 10 euro; izen-ematea 17:30etik aurrera Oargin bertan). Irabazleentzat bazkari edo afaria Isastegi sagardotegian.

■ **21:00.** Bertso afaria, Oargi elkartearen, Amaia Agirre, Jesus Mari Irazu eta Diego Riaño bertsolariekin. Txartelak salgai daude dagoeneko Zizurkilgo Aurreran, Tolosako Raku eta Denak eta Leitzako Torrea tabernatan. Harpidedunentzat 20 euro, ez harpidedunentzat 25 euro.

■ **Ondoren.** Trikitixaz lagundurik, poteo herrikoa.

ohia, Leire Zubeldia *Galtzaundi*-ko kazetaria eta Ion Miranda *Txolarre*-ko arduraduna eta esataria.

Historia apur bat

Erraz esaten da bost urte bete dituela baina bidea ez da hain erraza izan. Une zail batzuen ondoren jaio baitzen HITZA. Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz *Euskaldunon Egunkaria* itxi egin zuten. Baina ez *Egunkariak* ezta garai hartan eskualdeko egunkaria zen *Egunerok* ere, ez zioten beren aleak kaleratzeari utzi. *Egunero*-ko kazetariak, *Egunkaria*-ko langileei, beren Tolosako erredakzioan lekua utzi behar izan zieten. Eta *Egunero*-koek aldiz, *Galtzaundi*-koen lekua hartu behar izan zuten beren lana egin ahal izateko eta baita izena ere. Lehen bost aleak, aldizkari formatua izan zuten eta jarraian ohiko formatorak pasa ziren. *Galtzaundi* izenarekin 27 ale kaleratu ostean, duela bost urte, gaurko egunez atera zen lehen aldiz kalera izen berriarekin, hau da, HITZA egunkaria bezala.

Euskarazko Komunikazio Taldeak arduradunak behar ditu MARKETIN eta KUDEAKETA sailletarako (erref.: o8-imk)

Eskatzen da:

- Marketin eta Enpresa Kudeaketa arloko unibertitate ikasketak.
- Kalkulu orriaren eta datu base programa informatikoen ezagutza.
- EGA edo balokidea den euskara maila.

Kontuan hartuko da:

- Marketin eta kudeaketa lanetan izandako eskarmentua.
- Talde gidaritzan esperientzia.
- Harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna.

Eskaintzen da:

- Etorrizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Egun osoko lanpostua.
- Lantokia Andoainen.

Interesa dutenek bidali curriculumara, martxoaren 19a baino lehen, erreferentzia zehaztuz, helbide honetara: gizabaliabideak@jarduna.net

BERRIAk telemarketin saileko lan poltsa osatu behar du (erref.: tlmk)

Telefono bidezko gestioak egingo dituen administrari edo komertzial bila gabilza. Bete beharreko zereginen artean **harpidetzak lantzea, inkestak egitea eta kobrantzak** bideratzea legoke.

Soldata finkoa eta emaitzen araberako komisioa eskaintzen da, lan kontratuarekin. Esperientzia izatea ez da ezinbestekoa, baina kontuan hartuko da telemarketin arloan, telefono bidezko lanetan eta komertzial gisa aurretik aritua izatea. Hizkuntza abilezia ere kontuan hartuko da.

Interesdunek curriculumara bidali gb@berria.info helbidera, erreferentzia zehaztuz.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaidea: 687 410 022. anoetaidea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Larrauli.** Apirilean Parisera aste-buru bateko bidaia antolatuta nahi dute Izen-ematea: 943 693930.
■ **Tolosaldea.** Jesusen heriotza eta piztuera ospakizunei hasiera emango diote gaur Kristau elkar-tean, erramuen bedeinkazioarekin eta Jesusen nekaldia gogoratuz: Santa Marian (10:45), Arramelen (12:00), Santa Klaran (09:45), San Frantziskon (12:30), Corpus Christin (12:30), Amartotzen (11:00) eta Ibarra (11:00).

Zinema

■ **Tolosa.** Gaur: 17:00ean *Mr. Magorium y la tienda magica*, 19:30ean *Expiacion* eta 22:00etan *This is England*. Bihar (ikuslearen eguna): 20:30ean *Expiacion*.
■ **Villabona.** *Lejos de ella* filma, gaur 19:30ean, eta bihar (ikuslearen eguna) 21:30ean. *Frankly y el tesoro del lago* gaur, 17:00etan.
■ **Leitza.** *La flauta magica* filma, gaur, 19:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
■ **Tolosa.** Ollarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Ama-ya kalea, 43. 112.
Bihar
■ **Lekua.** Ollarreaga, J. Korreo ka-
lea, 2. 943 67 67 0128.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea,
7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



European ospatu dute Zuhaitz Eguna

IRURA • Zuhaitzaren Eguna ospatzeko zain zeuden atzokoan Irurako haurrak. 16:00ak jo orduko, «karteletan hori jartzten zuen» esan eta landara abiatu ziren, nahiz eta euria egin. Udaletxeko langileak landa prest zuten ordurako, zuhaitzak sartuko zituzten zuloak txukun jarriak zeuden eta

haurrak bertan hasi ziren jolasean, Marimi alkatearen eta zuhaitzen zain. Berritoki ere udaletxeko langileak agertu ziren, atxur eta zuhaitzekin. Alka-tea ere agertu zen eta argakia atera ondoren, haurrak lanean hasi ziren, Zuhaitz Eguna euripean ospatu zutelarik. ASIERIMAZ

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argakia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

txokoa
h

2 sarrera pare

zozketan

Irabazleak:

- Maria Asuncion Tolosa (Amezketeta)
- Franzisko Baraibar (Areso)

Martxoak 17
astelehena
16:30ean
Tolosako
Beotibar
pilotalekuan



aspepelota.com

**Uriarte - Merino I
Cabrerizo - Apeztegia**
■■■■■■
**XALA - NALDA III
MTZ. DE IRUJO - LASA III**
■■■■■■
**Galarza V - Arruti
Olazabal - Galarza VI**



4 sarrera pare

zozketan

Irabazleak:

- Javier Kuadrado (Tolosa)
- Nekane Martinez (Alegia)
- Ainara Apeztexea (Ibarra)
- Karnele Begiristain (Villabona)

BRUESA GBC

Alicante Costa Blanca

ASTEAZKENA

MARTXOAK 19-20:30

ILLUNBE